

Materiala eskura [ON LINE PRENTSA ARETOAN](#):

Prensa oharra

Kooperatibak 4.000 pertsonatik gora elkartu zituen iaz topaketa honetan

**EROSKI-K KONTSUMITZAILE BAZKIDEAK
GONBIDATU DITU BERE EGUN HANDIA
OSPAZERA ASTEBURU HONETAN**

- EROSKI kooperatibak milioitik gora Kontsumitzaile Bazkide ditu Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian, eta asteburu honetan, ekainaren 21ean izango den Batzar Nagusia prestatzeko bilkurak egin nahi ditu.
- Tokiko produktuak, EROSKI Clubak dakarren aurrezpena eta elikadura osasungarriaren sustapena, EROSKIren berezko ezaugarriak direnak, eguneko protagonista izango dira
- Jardunaldi horretan, marka propioa ateratzen aurrendari izan zeneko 40. urteurrena ospatuko du kooperatibak

Elorrio, 2017ko ekainaren 8a.- [EROSKI](#)k asteburu honetan "*Bazkidearen egun handia*" ospatuko du Bilbon eta Donostian. Deialdi hori irekita dago kooperatibaren EAEko, Nafarroako, Errioxako eta Kantabriako milioi bat Bezero Bazkideentzat; horietatik 733.000 baino gehiago Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dira.

Ospakizunaren barnean, Kontsumitzaile Bazkideen Prestakizun Bilkurak antolatu dituzte, hilaren 21ean kooperatibaren Batzar Nagusia izango baita. Lehenbiziko Bilkura Donostiako Kursaaan izango da, larunbatean hilak 10, 12:00etan, eta bigarrena, biharamunean, Bilboko Euskalduna Jauregian, 18:00etan. Bilkura hauekin, Kontsumitzaile Bazkideek bertatik bertara jakingo dute joan den urtean zer-nolako eboluzioa izan duten kooperatibak eta haren proiektu nagusiek.

Horretaz gainera, Bilbon, zenbait jarduera antolatu ditu EROSKI iganderako. Joan den urtean bezala, denentzako modukoak izango dira. Iaz, adibidez, 4.000 lagun elkartu ziren. Hortaz, 11:30etik 20:00etara Euskalduna Jauregira agertzen direnek EKilibria zer den jakingo dute, EROSKI Clubeko bazkide guztientzako moduko nutrizio-diagnostiko pertsonalerako programa aurrendari bat, elikadura osasungarri, doako eta eskuragarri bat egiteko gomendioekin osatua.

Bertaratzen direnak gozatuko dira erakusketa interaktiboekin, dastaketekin eta sukaldeko zuzeneko erakustaldiekin, orobat elikaduraren gaineko tailerrekin.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Helduentzat bezala pentsatu dituzte haurrentzat ere, eta, gainera, beste ezuste eta jarduera batzuk ere izango dira, hala nola zozketak eta jokoak.

EROSKIk egun horretan azalduko ditu bere fidelizazio programari begira azkenaldian atera dituen bi ekimenak. Hala, kooperatibak EROSKI Club Mastercard kreditu-txartel berria aurkeztuko du; harekin, aurrezteko modu berriak eskainiko ditu, eta abantaila pertsonal eta zuzenak bere Bezero Bazkideentzat. Eta Ardoa maite dutenentzat ere gune bat pentsatua du, VINOTEKA.

Programaren barnean, halaber, kooperatibak bere marka atera zueneko 40. urteurrena ospatuko du, Espainian aurrendaria izan zena. Hain zuzen, gune interaktibo bat prestatu du, zertarako eta markaren historia eta eboluzioa erreparatzeko; izan ere, urte horietan kontatzeko moduko gertaerak izan dira, hala nola semaforo nutrizionalarena, gantz partzialki hidrogenatuak kentzearena eta nutrizio aldetik orekatuagoak diren elikadura produktuen sortarena EROSKI Sannia markarekin.

Gobernu korporatiboa EROSKI n

Bazkide Kontsumitzaileek kooperatibaren egunerokoan parte hartzen dute Batzorde Kontsumeristen bidez; 21 daude EAEn, Nafarroan, Errioxan eta Kantabrian. Batzorde horiek iritzia ematen dute, dendak etengabe hobetuz joan daitezen, eta diru funtsak kudeatzen dituzte gizarte eraldaketarako jarduerak lantzeko. Kooperatiba batek berezkoa baitu horrelako jarduerak sustatzea; esan nahi baita, elikadura orekatua eta ohitura osasungarriak, kontsumitzailearen informazioa eta formakuntza, eta ingurumenaren iraunkortasuna eta elkartasuna. Horrela, gizartea kohesionatzen da, eta aukera berdintasuna indartzen.

EROSKIn, gobernu korporatiboa era paritarioan osatzen dute kooperatibako Bazkide Langileek eta Bazkide Kontsumitzaileek. Hala, bai Batzar Nagusia —komunitate bakoitzeko 250 ordezkariarekin— bai Kontseilu Errektorea —hamabi kidez osatua, modu paritario berberean— demokratikoki aukeratzen dituzte, eta karguak hartzen dituztenek ez dute ordainsaririk jasotzen, gobernu korporatiboaren gainerako organoetako kideek jasotzen ez duten bezalaxe, esan nahi baita Kontseilu Soziala, Kontseilu Kontsumerista, Baliabideen Kontseilua eta Zaintza Kontseilua.

EROSKIn, erabakirik garrantzitsuenak kooperatibaren ordezkartza foroetan eztabaidatuta hartzen dira, zenbaitetan barne kontsulta zabalak egin eta gero.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)